



**2025EKO EKAINAREN 3KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hiruan, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2025eko maiatzaren 19an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2025eko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 45 zenbakidun zerrenda, LAUROGEITA BI MILA BERREHUN ETA BERROGIETA BOST euro ETA HOGIETA BEDERATZI zentimokoa (82.245,29 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- MEANDRO ALDEKO OINEZKONETZAKO BIDEAREN PROIEKTUA EGITEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA BIGARREN LIZITAZIO DEIALDIAREN ONARPENA.-

Udal honen eskariz, Soroa Arquitectos S.L.P.ko Pedro Izaskun arkitektoak, Meandro aldeko oinezkoentzako bidearen proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea Lazkaoko meandroaren inguruan irisgarria izango den bide bat egitea da. Bide horren helburu nagusia meandroaren zelaia inguratzea da, gaur egun dauden arkitektura-oztopoak kenduz, zehazki errepidearen azpiko pasabideko eskailerak, eta, beraz, EAEko Irisgarritasun Legearen irizpideetara egokituz hiri-inguruneetarako.

Proiektu honen aurrekontua 179.408,60 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko 3 botoekin (EAJ-PNV), 2 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botoirik gabe, honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Meandro aldeko oinezkoentzako bidearen proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedienteak onartu eta bigarren lizitazio deialdia egitea.

IV.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, SUTEEEN AURKAKO BABES ETA SEGURTASUNEN SISTEMEN ZERBITZUAREN KONTRATUARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, suteen aurkako babes eta segurtasuneko sistemak mantentzeko zerbitzuaren kontratazio espedienteak hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeak hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:

- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez suteen aurkako babes eta segurtasuneko sistemak mantentzeko zerbitzua kontratatzeak hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteak atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenaren ezarritako eraketa baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.


V.- GIPUZKOAKO EROSKETA ZENTRALAREN BITARTEZ, TELEFONO KOMUNIKAZIOEN ZERBITZUAREN KONTRATUARI ATXIKITZEA.-

Gipuzkoako Erosketen Foru Zentralak jakinarazi du, telefono komunikazioen zerbitzuaren kontratazio espedienteak hasiera ematera doala, esparru akordioaren prozedura bidez.

Kontuan izanda udal honetako Osoko Bilkurak, 2011ko martxoaren 17an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru kontratazioen zentralari atxikitzeak hitzarmena onartu zuela.

Kontuan izanda baita ere udal honek zerbitzu honen kontratazioa behar duela.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin zera erabaki du:



- 1.- Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez telefono komunikazioen zerbitzua kontratatzeko hasi duen esparru akordioaren kontratazio espedienteari atxikipena ematea, 2011ko martxoaren 17ko Udal Osoko Bilkurak onartuta atxikitako hitzarmenean ezarritako eran eta baldintzetan, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako arauetan.
- 2.- Enpresa esleipendunarekin kontratu eratorria izenpetzeko konpromisoa hartzea, aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.
- 3.- Baimena ematea Gipuzkoako Foru Aldundiari, erakunde honen datuak enpresa hornitzaileari eskatu eta horiek eskuratzeko, kontratazio espedientea arautuko duten baldintza agirietan jaso ahal izateko.

VI.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Euskara ikasten ari direnei.-

2024/2025 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle izan dira eta emango zaien kopurua, guztira, 619,50 €-koa da.

Ordainketa partida honetatik egingo da: 2025eko aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VII.- KULTURA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Kultura Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Maizpi elkarteari.-

2025eko San Prudentzio jaietan, maiatzaren 1ean, bakailu lehiaketa antolatzeagatik 2.507,13 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.12.334.00 partidatik egingo da.

Oin Arin dantza taldeari.-

2025eko San Prudentzio jaietan gazte topaketa antolatzeagatik 998,98 €-ko dirulaguntza ematea onartu da.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.01.334.00 partidatik egingo da.

Gerriko kultur elkarteari.-

2025eko San Prudentzio jaietan, apirilaren 29an, sardina jana prestatzeagatik 2.388,10 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 481.13.334.00 partidatik egingo da.

Lazkaomendiko Jai Batzordeari.-

2025eko martxoaren 31ko Gobernu Batzordean, Lazkaomendiko Jai Batzordeari, Lazkaomendiko festak antolatzeagatik 5.000 €-ko dirulaguntza ematea onartu zen eta momentu horretan 3.000 €-ko lehen zati bat ordaintzea erabaki zen.

Behin gastuak aurkeztu dituztenean, ikusi da gastuen kopuru osoa 3.947,88 €-koa izan dela. Beraz Gobernu Batzorde honek hau ikusita, 947,88 €-ko dirulaguntza ematea onartu du momentu honetan.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.02.338.00 partidatik egingo da.

VIII.- EKONOMIA SUSTAPENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Ekonomia Sustapeneko Batzordetik, merkataritza, zerbitzu eta ostalaritza jardueri dirulaguntzak emateko egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hauek hartu ditu:

- Merkatariei erosketa bonoengatik.-

Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2025eko maiatzean martxan jarritako erosketa bonoen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonoak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei lehen ordainketa egitea:

MERKATARIA	GUZTIRA	DIRULAGUNTZA
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	1.540,00	385,00
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	985,00	246,25
JOANA PLASENCIA ZUNZUNEGI (XANU)	3.275,00	818,75
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	270,00	67,50
LEIRE VELASCO SEISDEDOS (LEIRE ESKULA)	360,00	90,00
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	205,00	51,25
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	465,00	116,25
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	115,00	28,75
GUZTIRA	7.215,00	1.803,75

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 471.02.433.01 partidatik egingo da.



LAZKAOKO
UDALA

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



LAZKAOKO
UDALA